

Zortzi sakeak, errestoak huts

In: Euskaldunon Egunkaria: *Euskaldunon Egunkaria. Urtekaria 98*, Euskaldunon Egunkaria, Andoain, 1998: 2.

Gogoratzen dut nola aierupendu zidan behin don Manuel Lekuona apaizak jai eder baten mundu euskalduna: "Goizetik Meza Nagusi eder bat, eguerdian bazkari on bat, eta arratsalderako pilota partidu baten ederra".

Sintesi polita.

Bestalde, pilota jokoak badu gaur Euskal Herriak bizi duen egoerarekin antzik. Jatorriz txapela bezala, euskalduna da pilotaria, eta elkar lotuak geratu dira mundu osoan pilotari euskaldunean. Sinismena, bestetik; fede berria (*kixmi* jaio da, dio Barandiaranek. Jesukristori euskaldunek deitzen zioten moduan), goiz itsasi baitzitzaion bere sinismen zaharreko munduari. Ongi jatea ere oso berezkoa bezela ezagutzen zaio, ahal izan duen bezain laster, behintzat.

Pilota partiduari dagokionez, bada, partidu eder hau ospatsua, mutilkoskorretan, gerra aurretik, ezagutu nuen neronek: hasieran Aitagurearen lehen zatia esaten zuen apaizak plazako erdi-erdian kokatua, eta Abemariaren lehen erdia, eta Aintzaren lehen hitzak, eta herriak gogo handiz erantzuten ziola. Ez dakit gaur, azaroak 22. Atano III.ari eskainia den Donostiako frontoian Belokik eta Eugik bakarkako finalean modu honetan hala egingo duten gaur. Badakit hamabi-hamabitan hasiko dela, tradizioak erakutsi bezala; baliteke, oraindik gordetzen dira ohitura batzuk, eta litekeena da neuk sarrera honetako tituluan jarritako ohiturazko kantu hau tantoz tanto norbaitek egitea, baina ni neu frontoian, edo telebistako birtualean!, pilota partidua ikusten jartzen naizen askotan entzuten diot oraindik nere baitan haurtzaroan entzuten nuen kantua... Halere, gaur eguerdiko partiduaren aurrekoak ez dira nire aurrakusteak bete: bi pelotariak, marrazaina eta bezperan aukeratutako piloten kajadunarekin urriki irten, sakearen xorteketa kararuz egin, ez zilarrezko duro ederraren orde, gorri-berdeak albotan dituen txapa batekin baizik, eta laster hasi da lehiaketa, apostua, zeren pilota partida tantuak medio irabazteko dema baita. Euskararen apostua dugun antzekoa. Fronte asko baititu euskarak. Hauetako bat *Euskaldunon Egunkaria* dugu eskuetan, honek du gure lehentasuna. Ongi ari gara zortzigarren urtean goaz jarraian hutsik egin gabe, ez da gutxi. Geuk dugu berriz sakea orain, eta gure kontrarioa hutsik dago oraindik.

Honentxegatik diot Urtekariaren sarrera honen buruan: "Zortzi sakeak, errestoak huts".

Ahaleginak egunerokoak dira, gaurko kanpaina harpidedun berriak lortzea da; euskaldun askok ez baitu irakurtzen: eskola falta da hau, gazteak ari dira ikasten, baina helduek ere jarri behar dute irakurtzen; ahal behar dugu ahalegin bat egin *Euskaldunon Egunkaria* bide dela etxean goizero goiz gure hizkuntzaren apustua irabazteko.

Apustu hau euskara beraren apustuan dago, oraindik egunkari euskalduna zortzigarren urtean sartu da. Zaila zen Joxemi Zumalabe eta Joseba Jaka oraindik hemen

genituen 1990ko apustu hura nondik nora abiatuko zen auresatea, baina, dagoeneko gaur esan dezakegu boz goraz: "Sakeak zortzi, kontrarioaren errestoko esperantzak huts".

Eta hau euskararen gaurko apustua; lehen Rikardo Arregiren taldeak, eta AEKak ea bestek eginak dira, baina apustuak Euskal Herrian tradizio handia izan duenez, ez da, zorionez, honetarako gogoa zapuztu.

Nola hilko da orain, Europako etorkizunaren aurrean, milaka urte indartsu iraun duen hizkuntza!